

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

**KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA**

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Nafarroako Gobernuaren kultura-agenda aste honetarako

*Zinea, tailerrak, kontzertuak, erakusketak, haurrentzako aisiako jarduerak eta bisita gidatuak hartuko ditu*

Astelehena, 2018.eko otsailak 19

Nafarroako Gobernuak jardura berriak antolatu ditu otsailaren 19tik otsailaren 25era bitarteko asterako.

Punto de Vista Nafarroako Zinema Dokumentaleko Nazioarteko Jaialdiaren inguruko hainbat jardura antolatu dira asterako; martxoaren 5etik 11ra egingo da aurten jaialdia. Izan ere, Nafarroako Fimotekak “¿Dónde yace tu sonrisa escondida?” programatu du, Pedro Costa eta Thierry Lounasena, ostegunean, Punto de Vista jaialdiko “Foco” ziklo berriaren barruan. Huarte Zentroak, aldiz, “The Sound We See” tailerra hartuko du, Los Angelesko Echo Park Film Centerreko arduradunen eskutik.

Zinearen arloan, hiru film proiektatuko ditu Nafarroako Fimotekak: “Mujeres de El Cairo”, “El crepúsculo de los dioses” eta “El hombre que conocía el infinito”.


Musikak, bestetik, ondoko kontzertu hauek eskainiko ditu Baluartean: Nafarroako Orkestra Sinfonikoa, ostegun eta ostiralean, eta Symphonic Rhapsody of Queen zein Broadway, larunbatean biak.

Huarte Zentroak “Siete - Zazpi” tailerra ere antolatu du, larunbatean, “Habitación” programaren barruan.

Nafarroako Liburutegiak “Ongi etorri ipuinetara” haurrentzako aisiako programaren barruko saio berri bat programatu du asteazkenerako.

Igandean, Nafarroako Liburutegiak bisita berri bat egingo du klaustroko lanetara.

[Esteka honetan](#) duzu kultur programazio osoa:



“The sound we see” tallerreko irudia.